

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure funtsezko jarduera ekoizpena izango da. Bitarteko hainbat produktu hartuko ditugu, esaterako, aulkiak, bateriak, erresistentziak eta berogailuak. Horiek elkartuta gure produktu bukatua sortuko dugu eta berogailuak dituzten aulkiaen negozioa aurrera eramango dugu; aulki gehiago saltzen ditugun heinean, pertsona gehiagoren egoera hobetuko dugu. Hala ere, ondasun hauek ahalik eta pertsona gehiengana iristeko ezinbestekoa izango da plataforma egoki baten kudeaketa. Sare sozial ezberdinetan kontuak sortuko ditugu eta web orrialde bat sortuko dugu. Bertan informazioa txertatzen joango gara eta aldaketak egingo ditugu denborak aurrera egin ahala.